

Matxalen Ziarsolok agur esan dio eskubaloari

Matxalen Ziarsolo Areitioaurtena eskubaloiko jokalaria izan da orain arte Donostiako Bera Bera taldean. Bederatzi urterekin Ermuan hasi zen eskubaloian jokatzen, hasieran Ikastolako taldean, eta geroago Ermuko Eskubaloia taldean (gaur egungo Errotabarrin). 34 urterekin, agur esateko ordua iritsi zaio.

1 6 urte luze eskubaloian profesionalki jokatzen igaro ondoren eta garaipen zerrenda bikaina atzean utzita, 19 zenbakiari agur esateko momentua iritsi zaio. 1.420 gol patrikan (bigarren golegilea Tati Garmendiaren atzetik), 5 Kopa, 5 Superkopa eta 3 Liga, laugarrena lortzeko bidean.

Hautzaro eta gaztaro polita oroitzen du, lagunekin batera. Gogoan ditu bere lehenengo entrenatzaileak,

Marcelo, Irantzu eta abar. Reyes Carrere izan da Bera Bera taldeko ohorezko mailako entrenatzailea duela bizpahiru urtera arte, eta harekin igaro du Ziarsolok ibilbide gehiena. Reyesen ostean ermuar bat heldu zen, Imanol Alvarez, hark urtebete besterik ez zuen egin taldean, eta bere ordeza Aitor Etxaburu eibartarra etorri zen. Egun Montse Puche da entrenatzailea.

Entrenamenduak eta ikasketak zirela-eta Donostian



bizi zen astean zehar, baina asteburuetan Ermura etortzen zen lagunengana eta familiarengana. Humanitateak eta enpresa gradua Deustuko unibertsitatean burutu zituen. Gainera, gurasoak izan ditu jarraitzaile sutsuenak: partidu guztietara joan izan dira berarekin batera eta eurak izan dira agurraren berri izan duten lehenak.

Oro har taldekideekin harreman oso ona izan du, Eli Pinedo eta Esther Larreategi jokalaria ohi eta lagunarekin, besteak beste.

Baina, Matxalenen esanetan, agur esateko garaia heldu da. 2015eko urriaren bukaeran lesio gogorra izan zuen: 3 hilabetetan oina lurrean jarri ezinda ibili da. Orain askoz hobeto dago eta guztiz sendatzeko gogo bezte dago Matxalen.



Emakumezkoen kirolaz ez da ahazten. Emakumezkoen kirola gora doala onartzen du, baina oraindik lan handia egiteko dagoela eta gizonetzkoen maila berera heltzeko pausu handia egin behar dela dio.

2026ko apirilaren bukaran malko artean, prentsaurreko baten bidez agur esan zion eskubaloari. Aupa Matxalen! Zorionak zure lan bikainagatik!

Amalia Arginzoniz



Zure publizitatea:
DROGETEN ITTURI
 943 179350
 688 632876
 drogeten@gmail.com



PUB YOMY

**Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean**

es
egolek
 elektrizitatea
 iluminazioa
 M. de Valdespina 14 · ERMUA
 943 17 00 61 · egolek@hotmail.com